



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 9a

137. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, Nafarroako toki entitateek Europako funtsekin finantzaturako proiektuetan parte hartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Eraentzaren aurkako adierazpenei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Sarrigurengo Bigarren Hezkuntzako Institutuaren instalazioei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Jauregian enpresa multinazional bateko zuzendariekin antolatutako bazkaria dela-eta, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Laneko Osasunaren Institutuak duen balorazioari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Arnaldo Otegik Estatuko aurrekontuei buruz egindako adierazpenei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, COVID-19az besteko patologien osasun-arretari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertaketarako agertoki eta epeei buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (7. or.).
- Galdera, familia gurasobakarrek jaiotzagatik 24 asteko baimenaren eskubideaz baliatu ahal izateari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (7. or.).
- Galdera, tributu arauak harmonizatzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, “Terrorismoaren memoria eta prebentzioa” hezkuntza-proiektuari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, datozen Gabonetarako COVID-19aren inguruan hartu beharreko neurriei buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako telebistetara bideratutako aurrekontu-partidei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (10. or.).

- Galdera, Nafarroako ostalaritzarako laguntzei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Ardurakidetza Plana Nafarroan abiarazteari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa. Ilmo. Sr. D. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, 26 milioi pertsona fusilatzea aldeztu duten militar erretiratuen txatari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (12. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako toki entitateek Europako funtsekin finantzatutako proiektuetan parte hartzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako toki entitateek Europako funtsekin finantzatutako proiektuetan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nola antolatuko du Nafarroako Gobernuak toki entitateek parte-hartzea Suspertze eta Erresilentiaren Mekanismoaren finantzaketa duten proiektuak gauzatzeko? Zer aukera izanen dute entitate horiek proiektuak "Next Generation, Nafarroarako ikuspegi bat" programan aurkezteko, edo Nafarroako Gobernuak zer leihatila artikulatuko du toki entitateek Trantsizio ekologikorako estrategia-Nafarroa Green delakoan sartzeko aukera izan dezaten?

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Nafarroako Foru Eraentzaren aurkako adierazpenei buruzkoa.**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Foru Eraentzaren aurkako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Egun hauetan, eta hainbat autonomia-erkidegotan indarrean dauden fiskalitateari eta zergei buruzko eztabaidari dagokionez, arduradun politiko eta instituzional batzuek Nafarroako Foru Eraentzarekin amaitzeko eskatu dute, pribilegioa eta elkartasun falta dela uste baitute. Nafarroako Lehendakariak uste al du baieztapen horiek erreallitatearekin bat datozela?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **Galdera, Sarrigurengo Bigarren Hezkuntzako Institutuaren instalazioei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Sarrigurengo Bigarren Hezkuntzako Institutuaren instalazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

troleko Osoko Bilkuran, 2020ko abenduaren 10ean izatekoa den horretan, ahoz erantzun diezaion.

Gaur egun, Sarrigurengo Institutuak 12 gela arrunt ditu. 2021. urtean, bigarren solairua eraiki eta egungo eraikuntza-bolumena handitzeko obrak amaitu beharko dira. Horrela, gela arrunten kopurua bikoiztuko da, eta ikastetxeak hainbat bulego, laborategi, sail, komun eta korridore berri izanen ditu.

Gaur egun Eguesibarko Bigarren Hezkuntzako Institutua eraikita dagoen FP1 lurzatia eta 2022an beste handitze bat egitea aurreikusita dagoen DD14 lurzatia Urederra kaleko oinezkoentzako tarte batek bereizten ditu.

Izquierda-Ezkerrarentzat ezinbestekoa da hiru espazio horiek (bi lurzatiak eta oinezkoentzako bidea) batzea Sarriguren BHiko instalazio guztiak integratuko dituen hezkuntza-espazio bakarra lortzeko.

Gure ustez, konponbiderik onena instalazioak horizontalean zabaltzea da, bai jasangarritasun

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gobernuak Parlamentu honetako hurrengo kon-

ekonomikoaren eta ingurumenaren ikuspegitik, bai institutuko profesionalen funtzioak efizientziaz eta eraginkortasunez betetzearen ikuspegitik. Eraikin bakarria funtzionalagoa da eremu komun erabileraren optimizazioari dagokionez; curriculumaren espazioak, denborak eta jarduerak antolatzea errazten du, eta, gainera, ikastetxearen energia eta funtzionamendu-gastuak aurrezteak dakar.

Zer jarrera du Nafarroako Gobernuak Sarriguren BHIko instalazioetarako hezkuntza-espazio integratu bakarria sortzeari buruz, eta zer ekintza legegile zein proiektu-ekintza eta zer konponbide aurreikusi ditu horri dagokionez?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

---

## **Galdera, Nafarroako Jauregian enpresa multinazional bateko zuzendariekin antolatutako bazkaria dela-eta, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Laneko Osasunaren Institutuak duen balorazioari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Jauregian enpresa multinazional bateko zuzendariekin antolatutako bazkaria dela-eta, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Laneko Osasunaren Institutuak duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabide batek dioenez, Nafarroako Osasun Publikoko eta Laneko Institutuak "indarrean dagoen araudiaren kontrakotzat" eta "zuhurtziagabetzat" jo zuen enpresa multinazional bateko zuzendariekin duela gutxi Nafarroako Jauregian antolatu zenuen janaria. Zer balorazio egin duzu horri buruz? Baloraziorik egin ez baduzu, eskatu al duzu balorazio bat egin dadin?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, Arnaldo Otegik Estatuko aurrekontuei buruz egindako adierazpenei buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Arnaldo Otegik Estatuko aurrekontuei buruz egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Arnaldo Otegik adierazpen hauek egin zituen: “euskal errepublika independenteak baietz esan behar diela aurrekontuei”. Zer iritzi du lehendakariak Arnaldo Otegiren adierazpen horiei buruz? Nola interpretatzen ditu Nafarroan Gobernuak Bildurekin sinatu duen aurrekontu-akordioari dagokionez?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an.

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, COVID-19az besteko patologien osasun-arretari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, COVID-19az besteko patologien osasun-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer inpaktu izaten ari da Nafarroako biztanleen osasunean COVID-19az besteko patologien osasun-arreta?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, COVID-19aren aurkako txertaketarako agertoki eta epeei buruzkoa.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, COVID-19aren aurkako txertaketarako agertoki eta epeei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Txertoa ez da COVID-19aren aurkako baliabide bakarra, baina garrantzitsuena da birusari

muga jartzeko eta gizarteari nolabaiteko normaltasuna emateko. Ikerketen etapetan aurrera egiten ari den neurrian eta etorkizun oparoa duten emaitzak argitaratzen hasi direnez, txertoa lortzetik hurbil gaudela ematen du. Alabaina, hain sanitarioak ez diren beste interes batzuen ondorioz, txertoai buruzko mota guztietako albisteek komunikabide eta sare guztiak hartu dituzte, gai gehiegi nahastuz eta ziurtasunaren zigilua emanez burutapen, zehaztasun falta eta gezur askori.

Gure ustez, populazioak txertoak nahi ditu, eta itxaropen puntu bat izan daiteke etorkizun hori hain hurbil izateagatik, baina informazio kontrajarriak, gezurrezko interesak eta azken hilabeteotan izan dugun data-dantza direla-eta, ikuspegi hori gehiago da frustrazio-puntu bat itxaropenerako puntu bat baino.

Horregatik guztiagatik:

Zer egoera eta epe aurreikusten ditu Nafarroako Gobernuak COVID-19aren aurkako txertaketarako?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Galdera, familia gurasobakarrek jaiotzagatiko 24 asteko baimenaren eskubideaz baliatu ahal izateari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, familia gurasobakarrentzat jaiotzagatiko 24 asteko baimenaren eskubideari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkar-teari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak abenduaren 10ko Osoko Bilkuran erantzun diezaion.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, azkenean, familia gurasobakar batentzako

24 asteko baimenerako eskubidea aitortzen duen epaia eman ondoren,

Zer ekintza egitea gomendatzen die Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko familia gurasobakarrei eskubide horretaz baliatu ahal izateko?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Galdera, tributu arauak harmonizatzeari buruzkoa.***MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotatun handiko galdera, tributu arauak harmonizatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotatun handiko honako galdera hau egin du, 2020ko abenduaren 10erako aurreikusitako kontrolerako Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Bistan da Madrilgo Erkidegoak zergen jaitziera-politika orokorrarekin sortu duen arazo (horren barne dela zerga batzuk kentzea; esate baterako oinordetzen gainekoa eta ondarearen

gainekoa). Eskuineko alderdiek beheranzko erreforma fiskalen lasterketarako deia egin nahi diete autonomia erkidegoei, gehien dutenei zergak murrizte aldera.

Lasterketa horretan ezin dela parte hartu uste dugu; izan ere, zalantzarik gabe, "beheranzko" harmonizazio fiskal batek, sozialki eta fiskalki bidegabea izateaz gain, zerbitzu publikoen kalitatea kaltetuko luke, haiek murriztu egiten lituzke eta horien pribatizazioa sustatuko luke. Arazoak eta desberdintasun fiskalak ez dira lurraldeen artekoak, zergadunen artekoak baizik; izan ere, zergadunek beren aberastasunaren eta etekinen araberrako ekarpena egin behar dute diru-kutxa publikoetarako.

Izquierda-Ezkerratik gogorarazi nahi dugu sozietateen gaineko zergak zerga-bilketa osoaren % 5-6ko ekarpena baizik ez duela egiten, eta PFEZak edo BEZak, berriz, % 30nako ekarpena egiten dutela.

Estatuko autonomia-erkidegoetan zerga-arauak harmonizatzeak aukerari buruz ireki den eztabaida dela eta, zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia eta jarrera?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero



## **Galdera, “Terrorismoaren memoria eta prebentzioa” hezkuntza-proiektuari buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, “Terrorismoaren memoria eta prebentzioa” hezkuntza-proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak abenduaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakinda Espainiako Gobernuak “Terrorismoaren memoria eta prebentzioa” hezkuntza-proiektua egin duela eta Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Erkidegoan aurkeztuko duela, Barne ministroak iragarri duenez,

Zer egiteko asmoa du Hezkuntza Departamentuak horri dagokionez?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

## **Galdera, datozen Gabonetarako COVID-19aren inguruan hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

*PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, datozen Gabonetarako COVID-19aren inguruan hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak 2020ko abenduaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan COVID-19aren pandemia kontrolatzeko hartutako murrizketen eraginkortasunean oinarrituta, Gabonetarako zein neurri hartzea aurreikusi da?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

## **Galdera, Nafarroako telebistetara bideratutako aurrekontu-partidei buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako telebistetara bideratutako aurrekontu-partidei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak datorren osteguneko, abenduaren 10eko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zure departamentuak 2021erako prestatu duen aurrekontu-proiektuan tratu pribilegiatua ezartzen da 1,3 milioi euroko berariazko hitzarmen baten bidez, Nafarroan emititzen duen telebista batekin; gainerako telebistei, berriz, 350.000 euroko partida bat esleitzen zaie, eta zenbateko hori norgehiagokan eskuratuko dute. Zein dira horretarako dauden arrazoiak eta zein ondorio izan ditzake erabaki horrek Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorean?

Iruñean, 2020ko abenduaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Nafarroako ostalaritzarako laguntzei buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako ostalaritzarako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuan harturik Nafarroako ostalaritza jasaten ari den egoera, Nafarroako Gobernuak iragarritako laguntzak "alemaniar erako laguntzak" eta nahikoak direla uste al duzu?

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Ardurakidetza Plana Nafarroan abiarazteari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Ardurakidetza Plana Nafarroan abiarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak honako galdera hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Estatuko 2021eko Aurrekontu Orokorretan Ardurakidetza Plana jasotzen dute, 200 milioi euroko aurrekontu-zuzkidurarekin, zaintzaile kualifikatuen sare publiko bat sortzeko, bermatze aldera 14 urtetik beheitiko seme-alabak dituzten familiak artatuak izatea, halako moduan non Estatua ere arduratuko baita eginkizun horretaz eta, aldi berean, lan duina sortuko baita.

Nola kudeatuko ditu Nafarroak funts horiek plana abiarazteko?

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa.**

*ILMO. SR. D. PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ilmo. Sr. D. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak abenduaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki jakin dugunez, Kontuen Ganberak presatatutako toki sektore publikoari buruzko 2018ko ekitaldiko fiskalizazio txostenaren ondorioek Gobernua eta Parlamentua premiatzen dituzte Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea garatu dezaten.

Horregatik guztiagatik:

Nola erantzunen die zure departamentuak Kontuen Ganberak gai horren inguruan egindako gomendioei?

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **Galdera, 26 milioi pertsona fusilatzea aldeztu duten militar erretiratuen txatari buruzkoa.**

### *AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 26 milioi pertsona fusilatzea aldeztu duten militar erretiratuen txatari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du abenduaren 10eko Osoko Bilkurarako:

Berriki jakin dugu Estatuko Gobernuaren aurkako erabateko errefusa adierazten duten militar erretiratuek osatutako WhatsApp talde bat bada-goela. Alderdi Popularra, zeina Na+ koalizioaren zati bat baita, ez da egitate horiek gaitzesteko gauza izan. Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak zer irizten dio Alderdi Popularrak ez gaitzesteari 26 milioi pertsona fusilatzea defendatzen duten militar erretiratuen txatariaren edukia?

Iruñean, 2020ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza